

¡Feliz Año Nuevo! Urteberri on!
2009



新年快乐

FELIZ ANO NOVO

UN AN NOU FERICIT

كل عام وأنتم بخير

С НОВЫМ ГОДОМ!

3 НОВИМ РОКОМ!

HAPPY NEW YEAR

BONNE ANNÉE

¡FELIZ NAVIDAD! 2008 EGUBERRI ON!

MERRY CHRISTMAS ● JOYEUX NOËL ● FELIZ NATAL ● BOAS FESTAS ● 3 P13ДВОМ ХРИСТОВИМ!

CRACIUN FERICIT ● С РОЖДЕСТВОМ ХРИСТОВЫМ! ● 圣诞节快乐 ● عيد ميلاد سعيد

BIRJINA MAITE

Birjina maite, lotan dago,
zure seme laztana:
seaskatxo bai ipiniozu
gure bihotzen kutunai.
Ongi, bai, ongi igaro ditzan
gauak eta egunak.
Poliki, poliki eragiozu
egin dezan lo ona.

HAUR EDER BATEN BILA

Haur eder baten bila
gabiltza zorutzen,
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen,
Jaungoikoaren herri
maite Jerusalem,
esan zaiguzu laister
Jesus non jaio den.

Izar bat agertu da
disdiraz zeruan,
kinuka ari zaigu
gabon gauerdian,
Jaungoikoaren herri...

Estalpe zahar batean
dago hotzez dardaraz,
azkar nahi dugu Jesus
berotu arnasaz,
Jaungoikoaren herri...

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela,
laisterka etorri da
berria ematera.

Horra, horra gure Olentzero
pipa hortzetan dula
eserita dago,
kapoiak ere baditu
arraultzatxuekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero, buru handia
entendimenduz jantzia,
Bart arratsean
edan omen du,
bost arroako zagia.
Ai, urde tripa handia!(ber)
Lara, lara, la, lara, lara...

Olentzero begi gorri,
fun, fun, fun (ber).
Esan zaiguk, esan zaiguk
ai Olentzero gurea,
non da Belengo bidea,
fun, fun, fun (ber).

HATOR, HATOR

Hator, hator, mutil etxera,
gaztaina ximelak jatera,
gabon gaua, ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita parrezka
amaren poz atseginez.

Eragiok mutil
aurreko danbolinari
gaztainak erre artean (ber)
txipli, txapla, plun!
Gabon gaua pozik
igaro dezagun.

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi
begira horri
gurekin nahi duela
Belena etorri,
gurekin nahi baduzu
Belena etorri,
atera beharko duzu
gona zahar hori.
Ator, ator zure bila
nenbilen ni (ber).
Atoz goazen agurtu dezagun
Belenen jaio den
Haurtxo eder hori (ber).

GUAZEN

Guazen aingerueki
arkaus alireki
gaur kantatzera
gore erregiaren
Xinko Semearen
adoratzera.

AI HAU GAUAREN ZORAGARRIA

Ai hau gauaren zoragarria,
Jesus jaio da Belenen,
herririk herri bila gabiltza
bila gabiltza beraren.

Aingeruak kanta,
artzai onak dantza
guztion alabantza
zuri zor dizugu.
Astoak a! Idiak mu!
Atseginik badugu.

Hartu makilak eta
jantzi abarkak,
artzaiak joan ziraden
Jesusen bila.
Ai zer atsegina den
dantzan jende guztia:
salto brinko eginik
denak joan ziren.

MESIAS SARRITAN

Mesias sarritan agindu zana
aingeru artean dator gugana (ber)
Gloria zeruan, pakea hemen
kantari aingeruak daude Belenen
(ber)
Belengo portalian
negu gorrian jaio da gure
Jesus askatxo batean,
Estalki gabe dago abere artean
guztiz ahaltsua dena
zeru ta lurrean.
Hantxen dago gure Jesus,
hantxen dago bai,
haurtxo txikia askan dago
amak esautzo lo egiteko
baina haurtxoak begiekin
esaten dio: Ama, ezin.



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala



Udaleraren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera